3.18 KARDIOBERTSIOA: AGURTU ITZAZU ARRITMIAK!

Amaia Abendibar Aurrekoetxea, Maria Jesus Uriarte Urkijo, Elena Badiola Renteria, Miren Abendibar Aurrekoetxea

Galdakao-Usansoloko Ospitalea – Zaintza Intentsiboetako Unitatea
2012

SARRERA: **Kardiobertsioa, EKG-aren R uhinean txoke elektriko sinkronizatu bat ematea da, arritmia kardiakoak zuzentzeko edo bideratzeko helburuarekin.**

HELBURUA: **Kardiobertsioaren helburu nagusia, arritmia kardiakoak zuzentzea da, erritmo sinusal jakin bat lortuz. Teknika hau, medikazioaren bidez ezer lortzen ez denean erabiltzen da.**

Bere inndikazioak, Fibrilazio Aurikularra, Flutter Aurikularra, Takikardia aurikular paroxistikoa eta Pultsudun Takikardia bentrikularra dira.

METODOA
4 PAUSU JARRAITU BEHAR DIRA:

1. MATERIALA PREST EDUKI:

- **Monitorizazio elektrodoak**
- **Botatzeko elektrodo itsasgarriak**
- **Monitore bifasiko konprobatua**
- **Oxigeno-maskara eta betaurrekoak**
- **EKG aparatua**
- **RCP karroa eta intubazio-materiala**
- **Guedel hodia eta anbua eskura eduki.**
- **Zain kateterizaziorako materiala**
- **Medikazio lasaigarria: fentanilo eta propofola**
- **Larrialdietarako medikazioa: atropina eta adrenalina**
- **Konpresa eta furazin pomada**

2. GAIXOA PRESTATU:



- **Gaixoaren identifikazioa ziurtatu**
- **Gaixoari teknikari buruzko informazioa eman**
- **Gaixoa lasaitu**
- **Erizain grafikoa zabaldu**
- **Haginordeak eta bitxiak kendu**
- **Oxigenoa jarri beharrezkoa bada**
- **EKG egin erritmoa konprobatzeko**
- **Zain-kateterra konprobatu**
- **Koagulazio maila konprobatu**
- **Burukoa kendu eta ohe-burua jaitsi**
- **6-8 ordu baraurik dagoela konprobatu**
- **Konstanteak hartu: bihotz-frekuentzia, TA eta O2 saturazioa**

3. TEKNIKA MARTXAN JARRI:

- **Gaixoa gorantza begira dagoelarik, gerritik gora biluztu eta monitorizatu**
- **Monitore bifasikoa era sinkronizatuan jarri: Konprobatu QRSa nabarmentzen duela**



- **Elektrodo itsasgarriak jarri: bata, eskumako klabikula azpian esternoiarekiko paralelo, eta bestea, bihotzeko apexean**
- **Konstanteak hartu**
- **Oxigenoa kendu**
- **Medikuak karga aukeratuko du**
- **Medikazio lasaigarria administratu medikuak esaten duenaren arabera**
- **Gaixoaren kontzientzia konprobatu**
- **Pertsona guztiak ohetik urrunduta daudela konprobatu**
- **Deskarga egin**
- **Erritmo sinusalean sartu den konprobatu. Horrela ez bada, deskarga berriro errepikatu beharko da, karga handiagoa erabiliz (3 aldiz gehienez, 2-3 minutuko tarteekin)**



4. KARDIOBERTSIO OSTEKO ARRETA:

- **Oxigenoterapia jarri, anbuarekin eman beharrezkoa bada**
- **Konstanteak kontrolatu, pazientea guztiz errekuperatu arte**
- **EKG egin**
- **Gaixoaren kontzientzia maila kontrolatu**
- **Furazin pomada eman deskarga izan den tokian eta konpresak jarri**
- **Adi egon konplikazioak ager ez daitezen**
- **Pazienteari informatu prozedura amaitu dela eta galdetu min edo arazorik duen**



ONDORIOAK: **Kardiobertsioak bere konplikazioak dituen arren (enbolismo sistemikoa, hipotentsioa, erredurak, EAP, erritmo alterazioak,...), konplikazio hauek %5era baino ez dira iristen. Arrakasta aldiz, %90 inguruan dabil. Hori dela eta, kardiobertsioa, arritmia kardiakoak hobetzeko prozedura garrantzitsuan bihurtu da eta erizainaren papera hain garrantzitsua izanik, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure lana azpimarratzea.**